



EKONOMIAREN GARAPEN, JASANGARRITASUN ETA  
INGURUMEN SAILA

Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetza  
Ingurumen Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE DESARROLLO ECONÓMICO,  
SOSTENIBILIDAD Y MEDIO AMBIENTE

Viceconsejería de Sostenibilidad Ambiental  
Dirección de Calidad Ambiental y Economía Circular

EBAZPENA, 2021eko irailaren 14koa, Ingurumen Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren zuzendariarena, Errenteriako Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren ingurumen-azterketa estrategikoaren irismen-dokumentua ematen duena.

## AURREKARIAK

2021eko uztailaren 6an, Errenteriako Udalak eskabidea aurkeztu zuen Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren Zuzendaritzaren aurrean, Errenteriako Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren (aurrerantzean, Plana) ingurumen-azterketa estrategikoaren irismen-dokumentua eman zedin, bat etorrita Euskal Herriko ingurugiroa babesteari buruzko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorrarekin eta Ingurumen-ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legearekin.

Eskabidearekin batera hainbat dokumentu erantsi zituen, tartean, Planaren zirriborroa, legeria sektorialean eskatzen den dokumentazioa eta hasierako dokumentu estrategikoa, honako hauetan ezarritako edukiarekin: abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 16. eta 18. artikulua, eta Planen eta programen ebaluazio estrategikoaren prozedura arautzeko urriaren 16ko 211/2012 Dekretuaren 8. artikulua.

Ingurumen-organoak kontsulta-izapidea egin zuen, halaxe zehazten baita abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 19. artikuluan eta urriaren 16ko 211/2012 Dekretuaren 9. artikuluan. Horien emaitza espedientean dago jasota. Era berean, izapidearen hasieraren berri eman zitzaion Errenteriako Udalari.

Halaber, espedientean jasota dagoen dokumentazioa eskuragarri jarri zen Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren webgunean, horretan interesa zuen orok aukera izan zezan ingurumen-arloan egoki irizitako oharrak egiteko.

Indarreko legerian txostenak jasotzeko ezarritako epea igarota, eta jasotako txostenak aztertuta, egiaztatu zen ingurumen-organoak behar beste judizio-elementu bazituela ingurumen-azterlan estrategikoaren irismen-dokumentua egiteko, abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 19. artikulua araberara.

## ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Ingurumen Ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 1. artikuluan xedatutakoaren arabera, lege horren xedea da planen ingurumen-ebaluazioa arautuko duten oinarriak ezartzea, plan horiek ingurumenean efektu adierazgarriak izan ditzaketenean; horretarako, ingurumenaren babes-maila handia bermatuko da, garapen jasangarria sustatzea helburu hartuta.

Halaber, Euskal Herriko Ingurugiroa Babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorraren 42. artikulua araberara, ingurumen-inpaktuen ebaluazioek egoki bermatu beharko dute, besteak beste, helburu hau betetzen dela: hautabide egokienak hautatu ahal izateko, plangintza-prozesuaren lehen faseetan egingo dela ingurumenaren gaineko eraginei buruzko azterketa, betiere, kontuan izanik jardueren ondoriozko eragin metatzaile eta sinergikoak.

Abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 6.1.a) artikuluan ezarritakoaren arabera, ingurumen-ebaluazio estrategiko arrunta egingo zaie planei eta programei, baita haien aldaketei ere, baldin eta administrazio publiko batek hartzen edo onartzen baditu eta legezko edo arauzko xedapen batek aginduta egiten eta onartzen badira, ingurumen-inpaktua ebaluatu behar zaien proiektuak etorkizunean baimentzeko esparrua zehazten dutenean.

Donostia 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz



Otsailaren 27ko 3/1998 Legearen 46.1 artikuluan xedatutakoaren arabera, ebaluazio bateratua egin behar da (ingurumen-ebaluazio estrategikoa) arauaren I. eranskineko A) apartatuan jasotako planei buruz, eta, hain zuzen ere, Errenteriako Hiri Antolamenduko Plan Orokorra plan horien artean dago.

Abenduaren 9ko 21/2013 Legeak xedatzen duenez, plan baten ingurumen-ebaluazio arrunta hasteko, beharrezkoa da ingurumen-organoak ingurumen-azterketa estrategikoaren irismena zehaztea, eraginpeko administrazio publikoei eta interesdunei kontsulta egin ostean.

Arau horrek 18.1 artikuluan xedatzen ditu hasiera-eskabideari erantsi beharreko dokumentuak, eta, abenduaren 9ko 21/2013 Legeari aurka egiten ez zaionean, urriaren 16ko 211/2012 Dekretuaren 8. artikulua zabaldu eta osatzen du hasierako dokumentu horri erantsi beharrekoaren edukia.

Amaitzeko, ingurumen-azterketa estrategikoaren irismena zehazte aldera, aintzat hartu dira abenduaren 9ko 21/2013 Legeak IV. eranskinean jasotako eskakizunak, ingurumen-azterketa estrategikoaren edukiari buruzkoak, baita urriaren 16ko 211/2012 Dekretuak I. eta II. eranskinetan jasotakoak ere, erreferentziako dokumentuaren edukiari buruzkoak eta ingurumen-jasangarritasunari buruzko txostenaren edukiari buruzkoak, hurrenez hurren.

Orain arte ezarritakoari jarraikiz, espedienteko txostenak aztertu dira eta honako hauek guztiak ikusi dira: Euskal Herriko Ingurugiroa Babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorra; Ingurumen Ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legea; planen eta programen ingurumen-ebaluazio estrategikoaren prozedura arautzen duen urriaren 16ko 211/2012 Dekretua; Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren egitura organiko eta funtzionala ezartzen duen otsailaren 23ko 68/2021 Dekretua; Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legea; Sektorre Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legea, eta aplikatzekoa den gainerako araudia. Horiek horrela, bada, honako hau

#### EBAZTEN DUT:

Lehenengoa. – Errenteriako Hiri Antolamenduko Plan Orokorren (aurrerantzean, Plana edo HAPO) irismen-dokumentua egitea, ingurumen-ondorioetarako soilik, eta honako baldintza hauen arabera:

##### 1. Planaren xedea eta ebaluazio-prozesuaren irismena

Indarrean dagoen hirigintza-araudia honako hau da: Hiri Antolamenduko Plan Orokorra, Diputatuen Kontseiluaren 2004ko otsailaren 3ko Erabaki bidez behin betiko onartutakoa, eta haren ondorengo aldaketa puntualak.

Errenteriako HAPO berriaren xedea da udal-mugartearen antolamendu integrala egitea, bai hiri-habitatarena, bai landa-habitatarena, eta habitat horietako guztietako lurzoruen erabilera arautzea.

HAPOk hiri-ingurunea garatzeko zenbait proposamen egiten ditu, bizitegi- zein industria-erabilerei, ekipamenduei, espazio publiko eta libreei eta komunikazio-azpiegiturei dagokienez, irisgarritasuna eta mugikortasuna hobetzeko.

A) Hiri-ingurunearen garapena: Hiri-lurzoruko eta lurzoru urbanizagarriko azalera apur bat handitzea planteatzen da, indarrean dagoen plangintzan ezarritakoarekin alderatuta; hiri-lurzoruaren eta lurzoru urbanizagarriaren ehunekoa % 15,32koa izatetik % 15,62koa izatera igaroko da.

- Bizitegi-erabilera: Etxebizitza berrien eskaintza planteatzen da (1.100-1.700 etxebizitza). Proposamen mota hauek bereizten dira:

- Gauzatzeke dauden garapenak dituzten eremuak, non indarreko plangintza finkatzen baita edo izapidetzen ari diren garapen-planen antolamendua jasotzen baita:
  - o Altzate: 189 etxebizitza garatzea proposatzen da, dagozkien ekipamenduekin. Ibaia zeharkatzeko oinezkoentzako pasabide berri bat egitea aurreikusten da.
  - o Esnabide: 81 etxebizitza planteatzen dira, baita bideak birplanteatzea ere.
  - o Gamongoa: 597 etxebizitza planteatzen dira. Lursail batzuk eremutik kanpo uztea proposatzen da, horien erabilera aldatzeko.
  
- Indarrean dagoen plangintzaren zehaztapenak aldatzen dituzten eremuak:
  - o Loidi: pabiloi industrialak eraitsi ondoren, 112 etxebizitza proposatzen dira, lokalekin eta garajeekin.
  - o Agustinak: 20 etxebizitza eta kultura-ekipamendu publiko bat planteatzen dira.
  - o Tolare-berri: bizitegi-garapena ezartzeko 3 aukera proposatzen dira, saihesbidea egin ala ez.
  - o Zamalbide Berri: 3 aukera proposatzen dira, lurzoru urbanizagarria kentzetik hasita eta indarrean dagoena baino garrantzi handiagoko hirigintza-garapena egitera bitarte, saihesbidea eginda.
  
- Eremu hauetarako, a priori, bizitegi-erabilera aukeratuko da, baina beste erabilera batzuk emateko aukerak ere proposatuko dira:
  - o Gaztaño: 5 aukera proposatzen dira, bizitegi-garapen desberdinak ezarrita, eta trenbidea lurperatuko da, baita trenbide-pasagunea kendu eta lehengo kotxetegiak eraitsi ere.
  - o Basanoaga: bizitegi-erabilera edo ekipamendu publikoa proposatzen da.
  
- Eremu hauetarako, a priori, beste erabilera batzuk aukeratuko dira, baina bizitegi-erabilera emateko aukera ere aztertuko da:
  - o Galtzaraborda: trenbide-trazadura lurperatzeko obren ondorioz, indarrean dagoen plangintzak parke bat ezartzea agintzen du. Planean kiroldegia handitzea edo 40 etxebizitza ezartzea proposatzen da.
  - o Palaziozarra-Larretxi: erabilera eta okupazio desberdinetarako 4 aukera planteatzen dira.
  
- Ekonomia-jarduerak: Ekonomia-jarduerak ezartzeko lurzoru berria eskaintzea proposatzen da, beheko solairuan 130.000 m<sup>2</sup>-rainoko okupazioa duen lurzorua erabiltzeko, 200.000 m<sup>2</sup> (t) inguruko eraikigarritasunarekin. Horrez gain, tokiko hiri-merkataritzak edo hirugarren sektoreko beste erabilera batzuek bizitegi-eraikinetan beheko edo goiko solairuak okupatzea ere aurreikus daiteke. Jarduketa mota hauek bereizten dira:
  - Dauden industria-eremuak berrantolatzeke edo handitzeko jarduketak:
    - o Txirrita-Maleo: eraikigarritasuna handitzea proposatzen da.
    - o Egiburu: eremuaren antolamendua eta sarbideak egokituko dira okupazioa handitzeko.
    - o Egiluze: eremuaren antolamendua aldatuko da.
    - o Intzinarte: industria-lurzorua berrantolatzea planteatzen da, industria-eraikin berriak lortzeko.
  
  - Industria-sektore berriak:
    - o Morrontxo: gaur egun lurzoru urbanizaezin gisa sailkatutako industria-lurzorurako sailkapen berria planteatzen da, 43.500 m<sup>2</sup>-ko azalerarekin.
    - o Tolarieta: industria-erabileretarako eta bestelakoetarako industria-lurzoru berria proposatzen da, 51.000 m<sup>2</sup>-ko azalera duena. Sarbideak partekatu ditzake mugakide duen Masti-Loidi lurzatiarekin.
    - o Perutxene/Larretxi: erabilera ezberdinetara bideratutako hiru aukera planteatzen dira: bizitegi-erabilera, indarrean dagoen plangintzaren arabera; industria-erabilera; eta beste jarduera batzuk. Palaziozarra muinoa askatzea proposatzen da, espazio libreen sistema orokorrean sartzeko.

- Ekipamenduak: hainbat eremutan (Agustinak, Alzate, Gamongoa, Loidi eta Basanoaga, besteak beste) lurzati berriak ekipamenduetarako gaitzea planteatzen da, baita beste eremu batzuetan aparkaleku publiko berriak egitea ere (Esnabide, Pontika, Alzate, Gamon zumarkalea, kotxetegiak eta Tomas López).
- Espazio libreak: Espazio libre kualifikatuen sistema planteatzen da, 50 hektarea baino gehiagoko sistema orokorreko mailan; gainera, tokiko espazio libre gehigarriak ere proposatzen dira, hiri-eremuan modu orekatuan banatuta eta sarean egituratuta.

Auzo bakoitzean, nagusiki oinezkoek erabiltzeko espazio libre bat proposatzen da, auzoaren identitateari lotutako erreferentzia-gunea, hau da, «Auzo bihotza». Bertan, gainera, hirugarren sektoreko jarduerak, bereziki merkataritzakoak, eta zuzkidurak ezarri nahi dira.

Horrez gain, auzoak elkar konektatzeko lau ardatz planteatzen dira, ibilbideen eta elementu mekanikoen sare osagarri baten bidez, Alaberga, Kaputxinos eta Beraunera iristeko dauden desnibelak gainditzeko edo Fanderia eta Agustinen arteko lotura egiteko.

Espazio librearen sistema horiek aurretik zegoen eta Aurrerakinean aurrekusi den hiri-parkeen sarearekin osatzen dira, eta eraztun berde bat osatzen dute hiri-eremuaren inguruan. Eratzun horrek ibilbide zirkular gehigarri bat eskaintzen du haren inguruan, eta lotura ezartzen du, oro har, lurzoru urbanizaezinarekin eta, bereziki, Lau Haizeta hiriarteko parkearekin zein Aiako Harria Parke Naturalarekin.

Horrela, espazio librearen sarea hiriguneko eratzun berde gisa diseinatzen da, iparraldean Oiartzun ibaiaren bi ertzetako pasealekuak dituela; eta eratzuna osatzen dute Fanderia, Markola, Arramendi, Palaziozarra, Gamongoa, Esnabide eta Kaputxinos parkeek. Guztira, 50 hektarea inguruko azalera izango du.

- Irisgarritasunari eta mugikortasunari lotutako proposamenak

Mugikortasun motorizatua nahiz ez-motorizatua bermatzeko beharrezkoak diren erantzun guztiei heltzen die, baita oinezkoentzako espazioa berreskuratzeagatik aparkaleku-zuzkidura egokia bermatzeari lotuei ere, gaia osotasunean aztertuta.

Oinezko eta Bizikleta bidezko Mugikortasun Planean aurreikusitako udal-gidalerroak eta -ekintzak jasota daude Aurrerapenean. Neurri edo jarduketa guztiak modu integratuan planteatzen dira, intermodalitatea bultzatzeko.

Garrantzitsuak dira ETSren trenbidea lurperatzeko eta lehengo kotxetegiak ordeztzeko proposamenak, ADIFen egungo trazatuan nazioarteko zabalerako «hirugarren hari» bat ezartzeko proposamenak eta salgaien saihezbide bat antolatzeko proposamenak.

- Zerbitzu-azpiegiturak

Udalerriko hainbat kokaleku planteatzen dira, zeintzuetan aukera egongo bailitzateke eguzki-energia fotovoltaikoko parke bat ezartzeko.

- Ondarearen babesa

## B) Landa-ingurunearen antolamendua

Indarrean dagoen plangintzan lurzoru urbanizaezinak % 84,68 hartzen du, eta Aurrerapenean proposatutako aldaketekin, berriz, % 84,38.

Kategoria hauek proposatu dira Errenteriako udalerriko lurzoru urbanizaezinaren zonakatze globala egiteko:

- Nekazaritza eta abeltzaintza: Nekazaritza eta abeltzaintzako eremuak identifikatzen dira, trantsizioko landa-paisaiak eta nekazaritza balio handiagokoak bereiziz, zeinak balio estrategiko handiko nekazaritza-eremu gisa identifikatzen baitira. Horien identifikazioa Nekazaritza eta Basozaintzako LAParen kartografian oinarritzen da, HAPOn berezko lan-eskalaren ondoriozko doikuntzak eginda.
- Ingurumen-hobekuntza: kategoria honetan sartzen dira betelanak egin edo hondakinak bota diren lurzoru eraldatuak, edo harrobi izan direna, baldin eta lehengoratzeko beharra badute. Aurrerapenean honako hauek identifikatu dira bereziki: San Markoseko zabortegiaren zati degradatua, harrobia eta Txoritokietako hegoaldeko hegalarren inguruan materialak botatzeko dagoen eremua, eta Aldura inguruan hautemandako betelan bat, zonakatze tipologia hori beste leku batzuetara zabaltzearen kalterik gabe.
- Babes berezia: udalerriko natura-ondarearen eta biodibertsitatearen estrategian definitutako babestu beharreko baso-eremuak eta horien moteltze eremuak dira; Estrategian jasotako babesteko baso-eremu horietan definitzen dira kontserbaziorako hedadura eta garrantzi handiena duten baso-masak, beren egitura eta lotura-funtzioa kontuan hartuta.
- Basogintza: Nekazaritza eta basogintzako LAPean zehaztutako baso-jardueretara bideratutako baso-eremuak identifikatzen dira, haren zehaztapenetatik abiatuta, HAPOn berezko lan-eskalaren ondoriozko doikuntzak eginda eta lehen aipatutako babes bereziko baso-eremuak kanpo utzita.
- Lurrazaleko uren babesa: ibaien eta erreken ibilguak eta ertzak identifikatzen dira. Kostaldeei buruzko Legean, Uren Legean eta EAeko ibai eta erreken LAPean xedatutakoaren arabera jokatu da. Horien arabera, 00 mailako ibilguen kasuan (arroatik < 1 km<sup>2</sup>), babesak 5 metrokoa izan behar du ibilguaren bi ertzetan. 0 mailako ibilguen kasuan (arroatik 1-10 km<sup>2</sup>), berriz, LAPean ezarritako atzerapenak 15 metrokoak izan behar dira.
- Sistema orokorrak: kategoria honetan sartzen dira garraio-azpiegituretarako lurzoru urbanizaezinetako eta zerbitzu-azpiegituretarako lurzoru urbanizaezinetako lurzoruak.
- Kudeaketa-planek arautzen dituzten naturaguneak: udal-mugartearen azaleraren zati handi bat dagoeneko babes berezia duten lurrak dira, kudeaketa-planek arautzen dituzten naturaguneak direlako. Egoera horretan daude Aiako Harria Parke Naturala eta Kontserbazio Bereziko Eremua. Parkean Añarbeko baso-erreserba barne hartzea proposatzen da.
- Beste espazio interesgarri batzuk: Lau Haizeta Parkea: Aurrerapenean, zonakatze globalaren proposamenak Lau Haizeta Parkea barne hartzen du. HAPO zehazterakoan, komeni da bereiztea landa-espazio libreen sistema orokorrean sartzen diren lurzoruak eta sistema horretatik kanpo utz daitezkeen lurzoruak, direla nekazaritza eta abeltzaintzakoak, direla beste erabilerara batzuetara bideratutakoak. Aiako Harria-Lau Haizeta korridorea: Lau Haizeta Parkea eta Aiako Harria Parke Naturala elkar lotzeko korridore bat antolatzea proposatzen da. Ekimen hori, berretsiz gero, gune gisa ere eratu ahal izango da.

Gainera, baldintzatzaile gainjarri hauek identifikatu dira:

- Natura-balio garrantzitsuak dituzten eremuak:
  - o Paisaia-interesa duten eremuak: paisaia-balioek eraginda udalerriko Biodibertsitate estrategian barne hartu diren eremuak dira, hain zuzen, Zaria, Urdaburu, Txoritokieta, San Markos, Igoia Akola, Añarbe, Aldura eta Aizpitarte.
  - o Onura Publikoko Mendiak (OPM): Añarbe [OPM 2.067.1] mendia, eta Antxulo ingurua sartu da duela gutxi.
  - o Plan Hidrologikoko eremu babestuen erregistroa: Errenterian, ur-harguneak eta horien babes-eremuak, zehazki, Landarbaso haitzuloa, Aizpitarte eta Añarbe. Era berean, eremu sentikor gisa sartu da Oiartzungo Estuarioa.

- Intereseko fauna babesteko eremuak: horien artean daude bisoi europarraren, Pirinioetako muturluzearen, espezie nekrofagoen eta kolakaren interes bereziko eremuak.
  - Intereseko landaredia: Batasunaren intereseko habitatak eta intereseko flora dagoen eremuak.
  - Intereseko beste naturagune batzuk: tartean, Añarbeko urtegia eta udalerrian dauden hezeguneak, bereziki, Pagosarde, Malmazar, San Marko, Igantzizabal eta Kutarroko hezeguneak.
- Ingurumen-arriskuak antzeman daitezkeen eremuak
- Kutsatuta egon daitezkeen lurzorua: IHOBEn inbentario eguneratuan sartutako lurzorua.
  - Uholde-arriskua duten eremuak: lehentasunezko fluxu-eremuak eta 10, 100 eta 500 urteko errepikatze-denborako uholde-orbanak dira, URAn informazioaren arabera.
  - Higadura-arriskua duten eremuak: nekazaritza eta basozaintzako LAPren identifikatutako higa daitezkeen eremuak eta % 50etik gorako maldak dituzten eremuak.

## 2. Ingurumen-helburu estrategikoak, printzipioak eta jasangarritasun-irizpide aplikagarriak.

Plana egiteko funtsezko oinarritzat hartuko dira 2020ko IV. Ingurumen Esparru Programaren helburu estrategikoak eta jarduketa-ildoak. Horrez gain, arau hauetan bildutako irizpideak jaso beharko dira: Euskadiko Ingurumena Babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorra; Planen eta programen ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazio estrategikoa egiteko prozedura arautzen duen urriaren 16ko 211/2012 Dekretua; eta Euskal Autonomia Erkidegoko Natura Kontserbatzeko Legearen testu bategina onartzen duen apirilaren 15eko 1/2014 Legegintzako Dekretua.

Era berean, ingurumena babesteko, kontuan hartuko dira Planari aplikagarri zaizkion lurralde-antolamenduko planetan eta plan sektorialetan finkatutako irizpide, helburu eta zehaztapenak.

Zehazki, Plana zuzentzeko, garapen jasangarriko honako printzipio hauek hartu beharko dira kontuan:

- a) Lurzorua zentzuz eta era intentsiboan erabiltzea eta lehendik ere artifizializaturik dauden lurzoruen erabilera intentsiboa lehenestea, balio agrologiko handiko lurzorua eta lurzoru naturala ez dadin urbanizatu.
- b) Hiri-segregazioa, hiri-barreiadura eta mugikortasun behartua saihestea irisgarritasuna sustatzeko asmoz, lurzoruaren erabileren plangintza integratuaren, mugikortasunaren, eta hiri-egitura dentsu, trinko eta konplexuen bidez.
- c) Lurzorua gutxiago zigilatzea, haren erabilera jasangarriagoaren bidez, era horretan ahal beste eginkizun atxiki ditzan.
- d) Habitatak eta espezieak, natura-ingurumena eta lotura ekologikoa zaintzea eta hobetzea.
- e) Biodibertsitatearen galera geldiaraztea, ekosistemak lehengoratzeko eta lurzoruaren artifizializazioa mugatzea.
- f) Paisaiak eta kultura-ondarea kontserbatu eta hobetzea.
- g) Ondare geologikoa kontserbatzea.
- h) Ur-masen egoera ekologiko ona lortzea, baita baliabidearen erabilera jasangarria ere.
- i) Baliabide naturalen kontsumo jasangarria sustatzea: ura, energia, lurzorua eta materialak.
- j) Energia-aurrezpena, efizientzia eta energia berriztagarrien erabilera eta kogenerazioa sustatzea.
- k) Aire garbia bermatzea, bai eta zarata eta argi-kutsadura handien eraginpean bizi diren biztanleen kopurua murriztea ere.
- l) Klima-aldaketaren aurreko kalteberatasuna gutxitzen laguntzea, kaltea apaltzeko eta aldaketara egokitzeko neurriak sartuz.
- m) Arrisku naturalak gutxitzea.
- n) Lurzoru kutsatuaren kudeaketa hobetzea, eragileen eta lurzoruaren erabiltzaile potentzialen berme juridikoa eta jarduera bultzatuz.

Ingurumen-azterketa estrategikoak aztertu beharko du proposatutako jarduerak nola integratzen dituzten aipaturiko garapen jasagarriko printzipioetatik ondorioztatutako ingurumen-helburu estrategikoak eta jasagarritasun-irizpideak. Horretarako, helburuok betetzeko hartutako neurriak/irizpideak identifikatu beharko ditu.

### 3. Esparru geografikoa eta ingurumen-arlo garrantzitsuak

Errenteriako udal-mugarte osoa da HAPOren jarduera-esparrua, Gipuzkoako lurralde historikoaren ipar-ekialdeko muturrean. Azalera 32 km<sup>2</sup> ingurukoa da.

Eremuaren iparraldean, Pasaia badia eta hiri-, bizitegi- eta industria-kokaleku nagusiak daude, baita errepide- eta trenbide-azpiegitura garrantzitsuak ere. Udalerriaren erdialdea eta hegoaldea landa-eremua dira, eta bertan natura-balio handiko eremuak daude, hala nola Aiako Harriko eremu babestuak edo Añarbe ingurua.

Honako hauek dira ingurumen-ezaugarri nagusiak:

- Interes geologiko ertaineko zenbait puntu edo eremu identifikatu dira: Pasaia portua eta itsasadarra, Txoritokitako diskordantzia higatzailea, Urumeako haran meandriforme ahokatua.
- EAEko Nekazaritza eta Basozaintzako Lurraldearen Arloko Planak (2014ko urrian behin betiko onartu zenak) 78,32 ha ditu «nekazaritzarako eta abelazkuntzarako eremuak: balio estrategiko handia» kategorian sailkatuta. Azalera hori malda txikiko mendi-hegaletan banatzen da, AP-1 bide-azpiegituraren inguruan, Astigarraga udalerriarekiko mugan, Zamalbide eta San Markos auzoen inguruan.
- Errenteriako udalerria honela banatzen da: Oiartzungo Unitate Hidrologikoa (UH Oiartzun), iparraldeko eremuan lurraldearen % 60 betetzen duena, eta Urumeako Unitate Hidrologikoa (UH Urumea), udalerriaren hegoaldeko lurraldearen % 40. Biak ala biak Kantauri Ekialdeko Mugape Hidrografikoaren parte dira.
- Lurpeko ur-masen lau sektoreen azaleraren zati bat dago, eta horiek ere interes hidrogeologikoko kokalekutzat hartzen dira.
- Kantauri Ekialdeko Mugapearen Plan Hidrologikoak babestutako eremu hauek identifikatu dira:
  - Ur-harguneak eta babes-eremuak: Lardabaso haitzuloa, Aitzpitarte, Añarbe.
  - Eremu sentikorra: Oiartzungo estuarioa.
  - Habitatak edo espezieak babesteko eremuak: KBE ES210016 Aiako Harria.
  - Beste babes figura batzuk: Bisoi europarraren interes bereziko eremuak, Pirinioetako muturluzearen interes bereziko eremuak, Aiako Harria natura parkea.
- Espezie hostozabalen landaketek 363,62 ha hartzen dituzte, hots, udalerriaren % 11,35. Udalerrian dauden espezie hostozabal ugarien artean, *Quercus rubra* espeziearen landaketak nabarmentzen dira, % 4 inguruko azalera betetzen dutela.
- Batasunaren intereseko habitatek 806 ha betetzen dituzte, hau da, udalerriaren azalera osoaren % 25. Gainera, kontserbaziorako interesgarria den landarediaren artean, hariztiak eta hostozabalen beste baso batzuk sartuko dira (eskualde-interesekotzat jotzen direnak). Nekazaritza eta abeltzaintzako jarduerak 435,95 ha hartzen dituzte, udalerriaren % 14 inguru.
- Udalerriaren hegoaldeko mugan dagoen azalera txiki bat *Prunus lusitanikoa* espeziearen kontserbazio-eremua da. EAEko flora baskularraren zerranda gorrian jasotako espezieak ere badaude.

- Espezie Mehatxatuen EAEko Katalogoan agertzen diren fauna-espezieak ditu; horien artean daude «galzorian» gisa katalogatutako lau espezie, «kaltebera» kategorian dauden bederatzi espezie, «bakan» gisa sailkatutako hamahiru espezie, eta «interes bereziko» hogeita bat espezie.
- Errenteriako udalerrriaren hegoaldea, Aiako Harriak KBEarekin bat datorrena, interes bereziko eremua da, baita espezie nekrofagoen, ugatzaren, sai zuriaren eta sai arrearen elikadura-babeserako eremu ere.
- Udalerrriaren hego-mendebaldeko mugatik igarotzen den Urumea ibaiaren zatia bisoi europarraren (*Mustela lutreola*) eta muturluze iberiarraren (*Galemys pyrenaicus*) interes bereziko eremutzat hartzen da. Oiartzun ibaiak, udalerritik igarotzean, bat egiten du kolakaren (*Alosa alosa*) interes bereziko eremuarekin. Halaber, eremuaren barruan identifikatu dira ferra-saguzar mediterraneoaren (*Rhinolophus euryale*) interes bereziko eremua eta puntu sentikorra.
- Bertan daude Aiako Harria Parke Naturalaren zati bat (240/1995 Dekretua, apirilaren 11koa, Aiako Harria aldeko Natur Baliabideen Antolamendurako Plana onartzen duena) eta Aiako Harria Kontserbazio Bereziko Eremua, ES2120016 KBE (355/2013 Dekretua, ekainaren 4koa, Aiako Harria Kontserbazio Bereziko Eremu izendatzen duena [ES2120016], eta eremu horren kontserbazio-neurriak onartzen dituena).
- Onura publikoko mendien 1.591,20 ha daude, Gipuzkoako Mendiei buruzko 7/2006 Foru Arauak arautu eta Gipuzkoako onura publikoko mendien katalogoan jasotakoak.
- Beste gune interesgarri batzuk dira Lau Haizeta parkea eta Añarbeko erreserba.
- Udalerrriaren hegoaldea Aiako Harria eremuaren erdigunean dago, eta erdialdea korridore ekologikoen sarearen moteltze-eremuan. Urumea ibaia eta haren beste ibaiadar batzuk interes bereziko ibai-tarteak dira. Bestalde, GI-2132 errepidea harrapatzeak kontzentratzen diren gune gisa sailkatuta dago.
- Katalogoan (2004koa) jasotako elementuak identifikatu dira. Katalogo horretan, udal-mugartean dauden eta interes artistiko, kultural, historiko edo naturalistikoa duten elementu eraikien eta espazio zein elementu naturalen zerrenda jaso da.

Hauk dira ingurumen-arrisku nagusiak:

- Udalerrriaren hego-mendebaldeko muturrean, 10 eta 100 urteko errepikatze-denborako uholde-orbanak daude Urumea ibaiari lotuta.
- Lurzorua kutsa dezaketen jarduerak dituzten edo izan dituzten lurzatie inbentarioan jasotako 126 kokaleku identifikatu dira guztira; industria-jarduerak, betelanak edo zaborategiak dira.
- Errepideetako bide-trafikoa da (bereziki GI-20 eta AP-8 errepideak) inguruan zarata-maila handienak sortzen dituen fokua. Kaltetutako biztanleriari dagokionez, bide-zirkulazioak (kaleak eta errepideak) sortzen du eraginik handiena.
- Bero-boladek giza osasunean duten eragina eta ibai-uholdeek hiri-ingurunean duten eragina dira Errenteriako udalerrriaren egungo eta etorkizuneko klima-arrisku nagusiak.

#### 4. Jarduketak egiteko esparru desegokiak

Ingurune fisikoan efektu esanguratsuak dituzten jarduketak egiteko, desegokitzen jo beharko dira aurreko atalean jasotako ingurumen- eta/edo kultura-balio garrantzitsuak dituzten eremu guztiak.

Zentzu horretan, desegokitzen jotzen dira Aiako Harria Parke Naturalean eta Aiako Harria kontserbazio bereziko eremuan (KBE ES2120016) nabarmen eragiten duten jarduketak. Edozein kasutan, honako



dokumentu hauetan xedatutakoa bete beharko da: 355/2013 Dekretua, ekainaren 4koa, Aiako Harria Kontserbazio Bereziko Eremu izendatzen duena (ES2120016) eta kontserbazio-neurriak onartzen dituena; eta 240/1995 Dekretua, apirilaren 11koa, Aiako Harria aldeko Natur Baliabideen Antolamendurako Plana onartzen duena.

Era berean, a priori, desegokiak izan daitezke uholde-arriskuko eremuetako hirigintza-garapen berriak. Nolanahi ere, Planak jasotzen duen erabilera-proposamenak bateragarria izan beharko du honako arau hauetan ezartzen diren mugekin: Jabari Publiko Hidraulikoaren Erregelamenduaren 9. artikulua (849/1986 Errege Dekretua, apirilaren 11koa); eta Kantauri Ekialdeko mugape hidrografikoaren Espainiako zatiaren plan hidrologikoaren araudiaren (urtarrilaren 8ko 1/2016 Errege Dekretuaren bidez onartua) 40. artikulutik 42.era artekoak.

Kutsadura akustikoak eragindako eremuetan edo lurzorua kutsa dezaketen jarduerak dituzten edo izan dituzten lurzati inbentarioan jasotako kokalekuetan, neurri egokiak hartu beharko dira kutsatutako eremu horien berronertzea sustatzeko, jarduketak barne hartzeko egokiak izan daitezten.

Hain zuzen ere, eragin akustikoa duten eremuek, oro har, hots-kutsadurari buruzko araudia bete beharko dute, baita EAEko hots-kutsadurari buruzko urriaren 16ko 213/2012 Dekretua ere. Etorkizunean ezin izango da egin hirigintza-garapenik kanpoaldeko kalitate akustikoko helburuak betetzen ez diren eremuetan, hargatik eragotzi gabe aipatutako Dekretuaren 43. eta 45. artikuluetan ezarritakoa.

Hirigintza-garapen berriei heldu ahal izateko, naturaren, kulturaren eta ingurumen-arriskuaren ikuspegitik aipagarriak ez diren guneak lehenetsi beharko dira, hala nola lurzoru artifizializatuak eta lurzoru kutsatuak. Ahal den neurrian, balio agrologiko handiko lurzoruak beste erabilera batzuetarako ez birkalifikatzeko ahaleginak egingo dira.

5. Aurretiaz egindako kontsultei emandako erantzunen ingurumen-analisi laburra.

Jarraian, ingurumen-alderdi garrantzitsuenak zein diren laburbiltzen da –ukitutako administrazio publikoei eta pertsona interesdunei egindako kontsulteren izapidean jasotako txostenetan agertzen dira alderdi horiek–:

- Natura-ondarea:
  - Planak natura-baliabideen zaintzarekin bateragarria den plangintzarako irizpideak hartzen ditu kontuan.
  - Lurzoru urbanizaezinaren antolamendurako planteatutako oinarriak egokiak dira:
    - Parke Naturala eta Kontserbazio Bereziko Eremua antolatzeke, antolamendu- eta kudeaketa-tresnak erabiliko dira.
    - Intereseko landaredi-orbanak eta Batasunaren intereseko lehentasunezko habitatak gainjarritako baldintzatzaile gisa jasotzen dira; beraz, egokia izan daiteke baldintza horri lotutako araudi bat ezartzea, formazio horien babes bermatzen duena.
    - Faunarentzat interesgarriak diren eremuak (kudeaketa-plana dutenak) eta Añarbeko urtegia jasotzen dira, gainjarritako baldintzatzaile batean.
  - Lurzoru berriak okupatzeko proposamenak kezka sortzen du: Morronto (16,10 ha), Tolarieta (20,43 ha) eta Peritxene/Larretxipi (30,18 ha). Lurzoru berriak okupatu beharra justifikatu beharko da, baldin eta, Udalplan 2020ren arabera, udalerrian 19,7 ha-ko hiri-lurzoru eta lurzoru urbanizagarria hutsik badago. Beharra justifikatuz gero, konektibitateko garrantzitsuak diren zuhaitzi eta heskai autoktonoak zaindu beharko dira.
- Babes zibileko arriskuak:
 

Errenteriako udalerrian dauden babes zibileko arriskuak aztertu dira:

1. Uholdeei lotutako arriskuak: Jabari publiko hidraulikoaren, harekin lotutako babes-eremuen eta uholde-arriskuko eremuen gainean izan litezkeen eraginei dagokienez, Kantauri Ekialdeko Mugape Hidrografikoaren Plan Hidrologikoan eta Ibaien eta Erreken Ertzak Antolatze Lurraldearen Arloko Planean xedatutakoa bete beharko da, dagokion administrazio hidraulikoaren nahitaezko baimenean jasotako baldintzatzaileak betetzearen kalterik gabe. Itsas-lehorreko jabariaren eta hari lotutako zortasun- eta babes-eremuen gaineko eraginei dagokienez, kostaldee buruzko araudian eta uholde-arriskuen ebaluazioari eta kudeaketari buruzko 2007ko urriaren 23ko 2007/60/EE Zuzentarauan xedatutakoa beteko da. Drainatze-obrak diseinatzeko, Eusko Jaurlaritzaren 1992ko Uholdeak Prebenitzeko EAEko Plan Integralaren azterketa plubiometrikoan xedatutakoa bete beharko da. Añarbeko presaren eta haren lepoaren Larrialdi Planak (2017ko uztaila) zehazten duenez, presa eta/edo lepoa hautsiz gero, uholdeak gerta daitezke Urumea ibaiaren arroan zehar, jenderik gabeko eremuan.
2. Arrisku sismikoak: Ez da beharrezkoa Larrialdiko plan sismikoa egitea, baina eraikuntza berrietan sismoen aurkako Eraikuntza Araua hartuko da kontuan: zati orokorra eta eraikuntza (NCSR-029), irailaren 27ko 997/2002 Errege Dekretuak onartua.
3. Baso-suteen arriskua: Hirigintza-planifikazioa egiteko, kontuan hartu behar dira Baso-Suteetako Arriskuaren aurrean Larrialdietako Babes Zibileko Planaren Oinarrizko Gidalerroak (2013ko azaroaren 15ean Ministro Kontseiluaren erabaki bidez onartutakoa) jasotzen dituen mugak eta baldintzatzaileak, baita EAEko Baso-suteetarako Larrialdi Plan Berezian jasotzen direnak ere.
4. Arrisku teknologikoak:
  - A.- Salgai arriskutsuen garraioa: Aplikatzekoa den araudiaren arabera, 600 metroko lerroa ezartzen da azpiegituraren alde bakoitzean (ADIFeko Madril-Irun linea eta AP8, GI-20, G-636, GI-2132 errepideak), baldintza txarretan istripua gertatuz gero esku-hartzea beharko lukeen eremu gisa.
  - B.- SEVESO III araudia. Errenterian ez da araudi horri lotutako ezerein establezimenduren berri eman.
6. Ingurumen-azterketa estrategikoan kontuan hartu beharreko funtsezko alderdien definizioa eta irismena

Planean jasotako hainbat zehaztapenek indarreko Hiri Antolamenduko Plan Orokorrean ezarritakoak aldatzen dituzte. Ingurumen-ebaluazio berriak jarduketa-proposamen berriek sortutako efektu espezifikoak hartuko ditu oinarri. Alegia, kontuan hartu behar diren ingurumenaren gaineko efektuak honako hauek izango dira soilik: planak jasotzen dituen proposamen berrien edo dagoeneko existitzen direnen aldaketen ondoriozkoak; eta ez dira kontuan hartuko onartutako plangintza aldatu izan ez balitz ere gertatuko liratekeen efektuak.

Ingurumen-azterketa estrategikoak abenduaren 9ko 21/2013 Legearen IV. eranskinean ezarritako gutxieneko edukia izan beharko du, eta haren osagarri erabiliko da halaber planen eta programen ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazio estrategikoa egiteko prozedura arautzen duen urriaren 16ko 211/2012 Dekretuak II. eranskinean jasotakoa.

Aurrekoarekin bat etorritz, garatuko diren apartatuek honako eskema metodologiko honi jarraitu beharko diote:

1. Proposatutako planaren deskribapena
  - 1.1. Plangintzaren esparrua eta helburuak
  - 1.2. Planaren irismena, edukia eta garapena
  - 1.3. Plangintza-aukerak
2. Ingurumenaren ezaugarriak zehaztea
  - 2.1. Ingurumen-egoeraren deskribapena
  - 2.2. Laburpena: ingurumen-alderdi garrantzitsuak
3. Ingurumen-efektuak
4. Prebentzio, zuzenketa eta konpentsaziorako neurriak.
5. Ingurumena zaintzeko programa
6. Ingurumen-laburpena

## 7. Laburpen ez-teknikoa

Ebaluatzekoa den dokumentuaren ezaugarriak direla eta, uste dugu ingurumen-azterketa estrategikoak (aurrerantzean, IngAE edo Azterketa) hainbat alderdi landu behar dituela ahalik eta zabalena eta xeheena; honako hauek, zehazki:

### 1.1. Planaren deskribapena

Deskribatuko da zer alderdik konfiguratzen duten Plana, eta argi eta garbi identifikatuko da Plana gauzatzeak etorkizunean eragin ditzakeen ekintzetatik zeinek izan ditzaketen efektu kaltegarriak ingurumenean. Hori guztia, honako apartatu hauetan adierazitako egitura eta xehetasunekin:

#### 1.1.1. Plangintzaren esparrua eta helburuak

a. Azterketan, laburpen txiki bat jasoko da Planarekin lortu nahi diren helburu zehatzei buruz. Gainera, azterketak labur-labur jasoko du Planaren elaborazioa egitean nola hartu diren kontuan Ebazpen honetan («Ingurumen-helburu estrategikoak, printzipioak eta jasangarritasun-irizpide aplikagarriak» apartatuan) jasota dauden ingurumena babesteko helburuak eta printzipio eta irizpide jasangarriak.

Horrekin lotuta, IngAEk berariaz justifikatu beharko du planteatutako jarduketek osatzen dutela honako irizpide hau: «Lurzorua zentzuz eta era intentsiboan erabiltzea eta lehendik ere artifizialdurik dauden lurzoruen erabilera intentsiboa lehenestea, eta balio agrologiko handiko lurzorua eta lurzoru naturala ez urbanizatzea». Lurzoru berriak okupatu beharra justifikatu beharko da, baldin eta, Udalplan 2020ren arabera, udalerrian 10,82 ha-ko hiri-lurzorua eta 8,85 ha-ko lurzoru urbanizagarria hutsik badaude.

b. Hierarkian Plana baino goragoko mailan dauden planak edo programak identifikatuko dira. Azaletik deskribatuko dira Planaren xedearekin edo esparruarekin zerikusia duten plan edo programa horien zehaztapenak eta aurreikuspenak, baita ingurumena babesteko planari aplikatzen zaizkion irizpide, helburu eta zehaztapenak ere. Aurkeztu beharko da zer erreferentzia eta data duten hierarkian Planaren gainetik dauden plan edo programen onespren-egintzek, eta zehaztuko da ea plan edo programa horiek ingurumen-ebaluazio estrategikoaren mende jarri diren.

c. Planaren bitartez indarreko antolamenduaren barruan aldatuko diren alderdi zehatzak eta zehaztapenak deskribatuko dira.

d. Hala badagokio, hierarkian Planaren gainetik dauden planen ingurumen-adierazpen estrategikoetan finkatutako irizpideak eta zehaztapenak jasoko dira, baita horiek garatzeko beste tresna batzuetan ezarritakoak ere, baldin eta ebaluazioaren xede den planaren eremuan edo xedeon aplikatzekoak badira. Ingurumen-adierazpen estrategikoen erreferentzia aurkeztuko da, zehaztuta zer aldizkari ofizialetan argitaratu diren, eta kontsulta-gunerako esteka txertatuta.

e. Adieraziko da ingurumena babesteko zer irizpide, helburu eta zehaztapen finkatzen diren arauetan eta Planarekin hierarkia-harremanik ez duten beste plan eta programa batzuetan (Batasunekoak, estatukoak, autonomia-erkidegokoak edo tokikoak), baldin eta aplikatu beharrekoak badira.

Zehazki, eta beste batzuen artean, honako plan eta arau hauek hartuko dira kontuan:

- EAEko Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak (LAG) (128/2019 Dekretua, uztailaren 30ekoa).
- Donostiako-Bidasoa Beherea Eremu Funtzionaleko Lurralde Plan Partziala (121/2016 Dekretua, uztailaren 27koa).
- 240/1995 Dekretua, apirilaren 11koa, Aiako Harria aldeko Natur Baliabideen Antolamendurako Plana onartzen duena.
- 355/2013 Dekretua, ekainaren 4koa, Aiako Harria Kontserbazio Bereziko Eremu izendatzen duena (ES2120016), eta eremu horren kontserbazio-neurriak onartzen dituena.
- 215/2012 Dekretua, urriaren 16koa, eskualde biogeografiko atlantikoko hamalau ibai eta estuarioren Kontserbazio Bereziko Eremuak izendatzeko eta kontserbazio-neurriak onartzeko dena.

- Kantauri Ekialdeko Mugape Hidrografikoaren Plan Hidrologikoa (2015-2021), bereziki uholde-arriskuko eremuei eta Eremu Babestuen Erregistroari lotutako zehaztapenak (400/2013 Errege Dekretua, ekainaren 7koa).
- EAEko Ibaiak eta Errekak Antolatzeko Lurraldearen Arloko Plana (449/2013 Dekretua, azaroaren 19koa).
- EAEko Nekazaritza eta Basozaintzako Lurraldearen Arloko Plana (177/2014 Dekretua, irailaren 16koa).
- EAEko Hezeguneei buruzko Lurraldearen Arloko Plana (231/2012 Dekretua, urriaren 30ekoa).
- EAEko Kostaldea Babesteko eta Antolatzeko Lurraldearen Arloko Plana (43/2007 Dekretua, martxoaren 13koa).
- EAEko Trenbide Sarearen Lurraldearen Arloko Plana (41/2001 Dekretua, otsailaren 27koa).
- Ekonomia Jardueretarako eta Merkataritza Horniduretarako Lurzoruaren Sorkuntza Publikoaren Lurraldearen Arloko Plana (262/2004 Dekretua, abenduaren 21ekoa).
- Gipuzkoako Bizikleta Bideen Lurraldearen Arloko Plana (2/2013 Foru Araua, ekainaren 10ekoa).
- Ekainaren 25eko 4/2015 Legearen, Lurzoria kutsatzea saihestu eta kutsatutakoa garbitzekoaren, 23. eta 31.4 artikulua.
- 213/2012 Dekretua, urriaren 16koa, Euskal Autonomia Erkidegoko hots-kutsadurari buruzkoa.
- 90/2014 Dekretua, ekainaren 3koa, Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde-antolamenduan paisaia babestu, kudeatu eta antolatzearen gainekoa.
- 6/2019 Legea, maiatzaren 9koa, Euskal Kultura Ondarearena.

#### 1.1.2. Planaren irismena, edukia eta garapena.

a. Planean hautatutako alternatiben bidez indarreko antolamenduaren barruan aldatuko diren alderdi zehatzak eta zehaztapenak deskribatuko dira. Planaren irismena behar bezala definituta utzi behar da, Plana egin aurreko aurreikuspenak (Planaren ingurumen-ebaluazioa egitean indarrean zeudenak) eta aurreikuspen berriak alderatuz.

Antolamendua aldatzen den esparru/azpiesparru guztietarako, datu hauek eman beharko dira:

- Planoan kokatzea.
- Azalera.
- Indarrean dagoen plangintzaren eta Planak sartutako proposamen berrien arteko alderaketa: hirigintza-garapen berriak, eraikigarritasuna handitzea, bide berriak eraikitzea edo beste ekintza batzuk.
- Nabarmen kaltetu daitezkeen eremuen ingurumen-ezaugarriak.

Informazio hori argi eta garbi identifikatu beharko da, eta, horretarako, ekarpen kartografiko batean oinarritzea gomendatzen da, islatutako informaziora egokitutako eskala batean.

Azterlanak HAPOn helburu nagusien laburpen txiki bat jaso beharko du, eta era berean, xehetasun osoz deskribatu beharko ditu Planean txertatutako proposamen, aldaketa edo xehakapen berriekin lotutako ekintzak –aldaketa edota xehakapen horiek eragindako eremuan indarrean den hirigintza-antolamendua oinarri hartuta bereiziko dira, betiere ingurumenean efektu kaltegarri nabarmenak izan baditzakete–; horretaz gainera, eremuaren garapenerako beharrezkoak diren jarduketa guztiak hartuko dira kontuan.

Horrela, jarduketa-eremuetarako proposamen zehatzen definizioa jaso beharko du IngAEk, HAPOn aurrerapenean aurkeztzen diren jarduketa-alternatiba irekiak zehaztuta.

Zentzu horretan, lurzoru urbanizaezinaren antolamendua sartu beharko da IngAEEn. Antolamendu-kategoriak eta gainjarritako baldintzatzaileak mugatu eta definitu beharko dira, bai eta horietako bakoitzean esleitutako erabilera-araubidea ere.

Zentzu horretan, Itsasertza Babestu eta Antolatzeko Lurraldearen Arloko Planeko (LAP) 30. artikuluan ezarritakoaren arabera, HAPOk lurzoru urbanizaezinaren kategorian jaso behar ditu LAPean Babes Bereziko eta Ingurumenaren Hobekuntzarako eremu gisa definitzen direnak, tresna horrek 29. artikuluan ezartzen duen erabileren erregulazioa oinarritzat hartuta.

b. Planeko proposamenak gauzatzeko erabiliko diren proiektu eta jarduketan ezaugarri buruzko aurreikuspen bat egingo da. Zehazki, arreta berezia jarriko zaie hirigintza-garapen berriak, azpiegitura berriak edo ingurune eraldaketa nabarmenak eragin ditzaketen jardueri, baita lurzorua kutsa dezaketen jarduerak nozitzen edo nozitu dituzten lurzoruetan eragina dutenei ere.

Bestalde, Planaren barnean egonik ingurumen-inpaktuaren ebaluazioa egitera behartutako planak edo proiektuak identifikatu beharko ditu IngAEK, garapenaren baldintzak ezartzeko eta, hala badagokio, proiektuak gauzatzeko eraginak gutxitzeko gidalerroak ezartzeko.

c. Ingurumenean eragina izan dezaketen Planeko ekintzak deskribatu eta kokatuko dira, eta garrantzi handienetik txikienera hierarkizatuko dira, kontuan hartuta haien kokapen zehatza, izaera, magnitudea eta baliabide naturalen kontsumoa. Horrela deskribatutako plan-ekintza bakoitzari kode bat esleituko zaio. Kode hori azterketaren hurrengo apartatuetan erabiliko da, baldin eta aipatu behar bada.

d. Plana onartu ondoren, haren garapena zehaztu eta plangintzaren geroagoko faseak aipatuko dira, baita Planaren zehaztapenak ezartzeko tresnak ere. Era berean, aurreikusiko da garapen-tresna eta/edo proiektu horiek ingurumen-ebaluazioaren mende egon daitezkeela.

e. Nolanahi ere, Plana garatzeko zenbat denbora aurreikusten den erantsiko da, eta, hala badagokio, aurreko apartatuan azaldutako ekintzetarako denbora-aurreikuspena zehaztuko da.

f. Epigrafe honetan biltzen den informazioa kartografikoki islatuko da dagokion eskalan, eta lurraldearen erabilera islatuko du, baita ingurumen-efektu nabarmenak ekar ditzaketen Planaren aurreikuspen eta jarduketak ere. Informazio kartografikoa atxiki beharko da, gutxienez hauek jasoko dituenak: eremuaren mugaketa eta jarduketaren kokapena, *pdf* eta *shape* formatuetan.

### 1.1.3. Plangintza-aukerak.

a. Azaletik deskribatuko dira Plana emateko prozesuan kontuan hartu diren aukera guztiak. Aukera horiek bideragarriak izan behar dute teknikoki eta ingurumenaren aldetik, eta hauei buruzkoak izan daitezke: kokalekua, garapen teknikoa, aldi baterako garapena, kudeaketa, antolamendua, baliabide naturalen erabilera edo beste edozein alderdi. Era berean, 0 aukera edo esku ez hartzeko aukera ere hartuko da kontuan; kasu horretan, honako hau izango da erreferentzia: jarduketa-eremuaren alderdi garrantzitsuek izan dezaketen bilakaera Planaren proposamenak aplikatu ezean.

b. Aukera horien irismena deskribatuko da, eta zehaztuko da zer alde dagoen aukera bakoitzaren arabera Planean jasotako proiektuen eta ekintzen artean, 1.1.2.b apartatuan deskribatutako proiektuekin eta 1.1.2.c apartatuan deskribatutako ekintzekin alderatuta.

c. Laburpen bat ere jasoko da azaltzeko zergatik baztertu diren aztertutako plangintza-alternatibak eta zergatik onartu den azkenean proposatutako alternatiba.

d. Aztertutako alternatibak kartografikoki jasoko dira.

### 1.2. Ingurumenaren ezaugarriak zehaztea.

Azterlanak deskribatu beharko du zein diren ingurumenak egun duen egoeraren ezaugarri nagusiak Planak eragiten duen eremuan. Deskribapen horretan, elementu abiotikoen eta biotikoen ezaugarriak aztertuko dira, bai elementu bakoitzaren ikuspuntu sektorialetik, bai beren interakzioen ikuspuntutik, eta ingurumenaren egungo egoeraren ikuspegi integratua emango da.

Planaren eraginpeko esparrua, antolamendu-esparru osoa izateaz gain, esparru horren inguruerik hurbilena ere izango da, eta ingurune hori mugatuko da Planaren ekintzek ingurumen-efektu garrantzitsuak izan ditzaketen eremuetara.

Ingurumenaren kalitatearen gaineko alderdiei buruzko informazioa azterlanetan edo bestelako erreferentzia-dokumentuetan oinarrituta dagoenean, emandako datuen iturria identifikatuko da, eta adieraziko da zein den titulua, urtea, egilea, eta, hala badagokio, zer esteka balia daitekeen lana bere osotasunean kontsultatzeko.

Azterketak eskalako planoak jasoko ditu, ingurunearen aldagaia islatzeko modukoak.

#### 1.2.1. Ingurumen-egoeraren deskribapena.

Honako hauek izango dira, gutxienez, aintzat hartuko diren ingurumen-alderdiak:

a. Ingurune fisikoa. Zenbait faktore hartuko dira kontuan, hala nola arroka ama eta zorupea, horien iragazkortasuna, masak eta ur-puntuak, faktore klimatikoak eta lurzoru mota. Lurzoru motari dagokionez, dituzten ezaugarriak direla-eta gaitasun agrologiko handiko modura katalogatutako lurzoruen erreferentzia aipatu beharko da.

b. Natura-ondarea. Natura- eta ekologia-intereseko elementuak daudela adieraziko da, hala nola ibai-ibilguak, mehatxatutako fauna- eta flora-espezieen banaketa-eremuak, Batasunaren intereseko habitatak, naturagune babestuak, hezeguneak, espezie autoktonoen basoak, landaredia, flora eta fauna autoktonoak, interes geologikoko tokiak, korridore ekologikoak, etab. Egungo elementuek duten kontserbazio-egoerari, interes-mailari, kalteberatasunari, presioei eta egungo mehatxuei buruzko datuak emango dira, Plana gauzatzean areagotu baitaitezke.

Hasierako dokumentu estrategikoak Errenteriako udalerraren ezaugarri nagusien laburpena jasotzen du, eta, oro har, egokitzen jotzen da natura-ondarearen alderdiei dagokienez.

Ildo horretan, lurzoru urbanizaezinaren kategorizazioan jaso beharko dira Itsasertza Babestu eta Antolatutako Lurraldearen Arloko Planean (LAP) babes bereziko eta ingurumenaren hobekuntzarako eremu gisa definitutako guneak.

Gainera, gogorarazi behar da udalerriko natura-ondarearen ikuspuntutik interes handiena duten elementuak antolamendu-kategoriekiko gainjarritako baldintzatzaile gisa jaso beharko direla.

Natura babestearen arloko araudiaren arabera babes-figuraren bat duten espazioei eta eremuei dagokienez, azterlanak hainbat alderdi xehatuko ditu dagozkion kudeaketa-planetan bildutako informazioa oinarri hartuta eta, ahal den neurrian, informazio hori eskuragarri dauden datu eguneratuagoekin zabaldua. Alderdi horiek honako hauek izango dira:

- Dagokion gunea edo eremua izendatzea eta babestea eragin duten balio eta elementu nagusiak deskribatuko dira, hala nola basaflora eta basafaunaren habitatak eta espezieak, lotura-funtzioak duten paisaiako elementuak eta abar.
- Elementu horiek espazioan duten kontserbazio-egoerari eta jasaten dituzten presio eta mehatxu nagusien ebaluazioari buruzko laburpena erantsiko da.
- Gainera, gunearen kontserbazio-elementuei buruzko kontserbazio-arauen eta -helburuen laburpen bat jasoko da.
- Babesaren xede diren guneetan eta eremuetan kudeaketa-funtzioak betetzen dituzten administrazio-organoa eta -unitatea identifikatuko dira.

c. Paisaia. Paisaia-pertzepzioaren ikuspegitik interesgarria den elementurik badagoen aztertuko da.

d. Ingurumen-arriskuak eta -arazoak. Arriskuei buruz jaso ahal izan diren datu guztiak emango dira, kontuan hartuta, besteak beste, higadura-arriskua, lurpeko uren kalteberatasuna, uholde-arriskua, arrisku geoteknikoak, klima-aldaketak eragindako arriskuak edo aipatzeko moduko beste edozein ingurumen-arrisku.

Orobat, airearen, uraren edo lurzoruaren kalitateari dagokionez hautemandako ingurumen-arazoak deskribatuko dira, egoera akustikoa barne. Kutsagarriak izan daitezkeen iturriak eta kutsagarriak izan

daitezkeen jarduerak jasan dituzten lurzoruak identifikatuko dira, eta baliabide naturalen erabilgarritasuna aztertuko da, bereziki urarena.

Hala dagokionean, aipatu ingurumen-arrisku eta -arazoen eraginpean egon daitezkeen eremuak identifikatu eta lokalizatuko dira.

e. Kultura-ondarea. Hautemandako elementu bakoitzaren garrantzia, kalteberatasuna, tresna eta babes-maila zehaztuko dira. Era berean, kultura-ondasunari kalifikazioa eta babes-eman dion arau-xedapenaren erreferentzia aipatuko da.

f. Apartatu honetan, gainera, egon daitezkeen beste ingurumen-baldintzatzaile batzuk landuko dira, baldin eta Planaren ingurumen-ebaluaziorako garrantzitsuak badira, hala nola mugikortasunari eta garraioari buruzko alderdiak, irisgarritasun-baldintzak, baliabide berriztagarrien eta berriztaezinen kontsumoari lotutako beharrak (ura, energia, etab.), jendea bizi den eremuen presentzia eta kaltetua izan daitezkeen biztanleria, eta abar.

#### 1.2.2. Laburpena: ingurumen-alderdi esanguratsuak.

Aurreko apartatuan azaldutako deskribapen eta datuak oinarri hartuta, ingurumenaren egungo egoera aztertuko da Planaren eraginpeko esparruan, eta labur-labur jasoko da zein diren Planeko jarduketaren ondoriozko elementu, prozesu, arazo eta ingurumen-arrisku garrantzitsuenak ingurumen-ebaluazioko prozesuan. Arreta jarri beharko zaie ingurumenaren ikuspegitik interesgarriak diren esparru, elementu edo egoerei, baita eragina jasateko arriskua duten alderdiei ere; horretarako, kontuan hartuko dira Planean jasota dauden jarduketaren ondoriozko proiektuen eta ekintzen kokapena eta ezaugarriak.

Ingurumenaren aldetik problematikoak diren eta gerora proposamenak gauzatzean zaindu beharko diren eremuak detektatu beharko ditu ingurumen-azterketa estrategikoak.

Eremuaren ingurumen-diagnostiko egoki bat egin beharko da haren harrera-gaitasuna, arrisku-guneak, eremu hauskor edo kalteberak eta abar ebaluatzeko. Apartatu hau idazteko, kontuan izango dira, gutxienez, Ebazpen honen «Esparru geografikoa eta ingurumen-arlo garrantzitsuak» izeneko apartatuan aipatu diren ingurumen-arlo garrantzitsuak eta aplikatu beharreko araudietan arlo horietarako ezartzen diren mugaketak.

Planak planteatzen dituen jarduketaren garapena baldintzatu ahal duten beste alderdi batzuk dira kutsatutako lurzoruen presentziarekin lotutakoak eta Euskal Autonomia Erkidegoko hots-kutsadurari buruzko Dekretua (urriaren 16ko 213/2012) aplikatzearen ondoriozko mugaketekin zerikusia dutenak. Bi alderdi horiek azterketan jorratuko dira. Horretarako, IngAEk argi eta garbi identifikatu behar du Plan honetan jasotako zein eremutan onartuko den antolamendu xehatu berria, eta zeintzuetan onartu beharko diren gerora aldaketak.

#### 1.3. Proposatutako planaren ingurumen-efektuak.

a. Apartatu honetan, identifikatu eta aztertuko da zer efektu izan ditzaketean Planean bilduriko ekintzek 2. apartatuan deskribatutako ingurumen-kalitateko elementuetan, eta efektu horien ezaugarriak deskribatuko dira. Planaren efektuak identifikatu eta horien ezaugarriak deskribatzeko, aztertuko da zer-nolako interakzioa dagoen lanean aurreikusitako ekintzen eta eragin ditzaketean ingurumen-elementuen ezaugarri espezifikoaren artean, bai eta zer ingurumen-arazo eta -arrisku sortu edo areagotu daitezkeen ere.

Ezaugarrien deskribapenean, argi eta garbi zehaztu beharko da zer motatako efektuak dauden, honako hauek berezita: zeharkako efektuak, efektu metagarriak, efektu sinergikoak, epe labur, ertain eta luzerako efektuak, efektu iraunkorrak eta aldi baterako efektuak.

Azterketak bereziki jorratu beharko ditu jarduketa-proposamen berriekin eta Planak indarrean dagoen antolamenduan eragin dituen aldaketekin lotutako ekintzen ingurumen-efektuak. Nolanahi ere, kontuan hartu beharko dira dagoeneko finkatuta dauden jarduketaren eta aurreikusitako jarduketa berrien arteko konbinazioaren efektu metatzaile eta sinergikoak.

Zehaztuko da, hala dagokionean, hautemandako efektuak eraginik sortzen ote duen Natura 2000 Sareko lekuetan eta 1.2.1.b apartatuan jasotako beste gune batzuetan zaindu beharrekoak diren elementuetan.

Halaber, hala badagokio, zehaztuko da zer efektu dakarren zenbait ekintzaren konbinazioak. Gainera, ingurumen-izaerako edozein efektu bereiziko da, baldin eta biztanleriaren, giza osasunaren edo ondasun materialen gainean ondorio kaltegarri eta nabarmenak izan baditzake.

Deskribatutako Planaren efektu bakoitzari, berriz, kode bat esleituko zaio. Kode hori azterketaren hurrengo apartatuetan erabiliko da, horren erreferentzia behar bada.

Beste alderdi batzuen artean, honako eragin hauek aztertuko dira:

- Errenteriako HAPOn eremuko eremu babestuen artean Aiako Harria Kontserbazio Bereziko Eremua dago. Eremua kaltetu dezakeen proposamen oro abenduaren 13ko 42/2007 Legearen 46.4 artikuluan ezarrita dagoenaren arabera ebaluatu beharko da; kasu horretan, azterlanak barnean hartu beharko du abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 35.1.c artikuluan jasotzen den berariazko apartatua, Natura 2000 Sareko guneek jasan ditzaketen ondorioen ebaluazioari buruzkoa.
- Aiako Harria KBEan eta interes bereziko beste eremu batzuetan kontserbatu beharreko elementuen gaineko eraginak ezaugarritu eta balioetsiko dira. Balorazio hori egiteko, kontuan hartu beharko dira 1.2.1.b apartatuan zehaztutako kontserbazio-egoera, presioak eta mehatxuak eta kontserbazio-helburuak. Kasu horretan, apartatu hori xehetasun-maila jakin batekin garatuko da, aurreikus daitezkeen ondorioak behar bezala identifikatzeko eta eraginaren neurriaren gainean egon daitezkeen zalantzak argitzeko.
- Aztertu beharko da zer eragin izan dezakeen uholde-arriskuak hirigintza-garapenetan, eta behar bezala justifikatu beharko da indarrean dagoen plan hidrológicoaren araudia betetzen dela, uholde-arriskuko zaintza-eremuen erabilera-mugei dagokienez (40. eta 41. artikulua). Justifikazio hori arloan eskumena duen organo baten azterketa hidraulikoan edo txostenetan oinarritzen bada, haiek ere aurreikutzeko beharko dira gainerako dokumentazioarekin batera, ingurumen-adierazpen estrategikoa eskatzeko.
- Bereziki ebaluatuko da bisoi europarraren interes bereziko eremu diren ibai-ibilbideetan egingo diren ukipenak.
- Eta balio agrológico altuko lurzoruen ukipenak ere aztertuko dira.
- Era berean, aztertu beharko da zer eragin eta ondorio dituen HAPOk proposatutako antolamenduak Batasunaren intereseko habitatetan, espezie autoktonoen basoetan eta interes bereziko beste eremu batzuetan.
- Kutsatuta egon daitezkeen lekuetan indusketen eta lur-mugimenduen ondorioz sortutako lurzatiak aztertuko dira.
- Etorkizuneko hirigintza-garapenen kasuan, aurreikusitako erabilerarako ezarritako kalitate akustikoaren helburuak betetzen diren aztertuko da, eta, horretarako, indarreko araudian araututako metodologia erabiliko da, betiere ebaluatzen den antolamendu motara egokituta (egiturazkoa edo xehatua). Euskal Autonomia Erkidegoko hots-kutsadurari buruzko urriaren 16ko 213/2012 Dekretuak ezarritakoaren arabera, etorkizunean hirigintza-garapenak aurreikusten badira (hirigintza-kalifikazioaren aldaketak barne) eta Planak eremuen antolamendu xehatua jasotzen badu, hirigintza- eta ingurumen-izapideetarako dagokion eragin akustikoaren azterlana sartu beharko da, dekretu horren 37. artikuluan aipatzen den edukiarekin.

b. Identifikatu eta kodetutako efektuak baloratzeko, honako alderdi hauek hartuko dira kontuan, besteak beste:

- Gertatzeko probabilitatea, iraupena, maiztasuna eta itzulgarritasuna.
- Efectuen larritasuna eta irismen espaziala.
- Eraginpean gera daitezkeen eremuaren balioa eta kalteberatasuna, honako hauek kontuan hartuta:
  - Naturari, kulturari eta paisaiari dagokienez ezaugarri berezirik ote dagoen.
  - Aurkako ingurumen-baldintzarik dagoen, airearen, uraren edo lurzorua kalitate-estandarrek edo muga-balioak gaindi dezakeenik.



- Planak ingurumen-arriskuak zein heinetaraino sortu edo areagotu ditzakeen.

Ahal den guztietan, efektuak zenbatetsiko dira, datu neurgarriak erabilia, Planean aurreikusitako jarduketak eta proiektuak gauzatzearen ondorioz deskribatu diren ingurumen-faktoreen egoera-aldaketei buruzkoak. Hala badagokio, efektu horien iragarpenean dagoen ziurgabetasun-maila adieraziko da.

c. Halaber, ahal den neurrian, efektuak kartografia bidez lokalizatuko dira, eta, orobat, ahalegina egingo da lotzen plan edo programaren zer fasetan gerta litezkeen, aurreikuspenen arabera.

d. Adieraziko da ea detektatutako efektua ekarriko duen ekintza horrek eskatzen duen beste plan eta programa batzuetan sartzeari laneko zehaztapenak, eta zehaztuko da kasu bakoitzean zein den eragindako planifikazio-tresna.

e. Hala deskribatutako ingurumen-efektuak hierarkizatu egingo dira, horien garrantzi erlatiboa nabarmentzeaz gain.

#### 1.4. Prebentzio, zuzenketa eta konpentsaziorako neurriak.

a. Apartatu honetan deskribatuko da zer neurri aurreikusten diren 1.3 apartatuan deskribatutako ingurumen-efektu kaltegarriak prebenitzeko, murrizteko eta, hala badagokio, konpentsatzeko. Hartuko diren neurriek bermatu egin beharko dute ez dela ingurumen-efektu esanguratsurik sortuko, Planaren ekintzak garatzearen eta etorkizunean gauzatzearen ondorioz. Haien helburua izango da natura-baliabideak, natura- eta kultura-ondarea babestea, natura-arriskuak prebenitzea eta hautemandako ingurumen-arazoan aurrean hobetu eta egokitzea.

b. Proposatutako neurriek koherenteak izan beharko dute aurreikusitako ingurumen-efektuekin. Neurriak deskribatu egingo dira, eta 1.3. apartatuan identifikatutako ondorio edo efektuekin –prebenitu, zuzendu edo konpentsatu nahi direnekin– lotuko dira. Bereziki, eta beste batzuen artean, honako neurri hauek zehaztuko dira:

- Berariazko neurriak, Aiako Harria KBEan eta udalerriko beste eremu batzuetan zaindu beharrekoak diren elementuak babestera zuzenduak, eta natura-ondarea eta lotura ekologikoa zaintzeko interes berezia dutenak. Alde horretatik, xehetasunez azalduko dira ebazpen honetan aipatutako gunek eta espezie mehatxatuak babesteko arau eta planetan aurreikusitako babes-neurriak eta kontserbazio-jarduketak, betiere hautemandako balizko ondorio kaltegarriak prebenitzeko edo zuzentzeko aplikatu beharrekoak badira, hala badagokio.
- Tokian tokiko lotura ekologikorako garrantzitsuak diren zuhaitzi eta heskai autoktonoak zaintzeko neurriak deskribatuko dira.
- Intereseko landaredi-orbanen eta Batasunaren intereseko lehentasunezko habitaten babesa bermatuko duen gainjarritako baldintzari lotutako araudi bat sartzeari egokitasuna baloratuko da.
- Uholde-arriskua prebenitzeko neurriak. Horiek zehazteko, Ebazpen honen aurreko apartatuetan aipatutako planetan ezarri diren irizpideak hartuko dira kontuan: EAEko Ibaiak eta Errekak Antolatzen Lurraldearen Arloko Plana (E.2 apartatua) eta Kantauri Ekialdeko Plan Hidrologikoa (2015-2021).
- Ibai-ibilguen inguruan dauden garapen-eremuetan, EAEko Ibaiak eta Errekak Antolatzen Lurraldearen Arloko Planean eta Kantauri Ekialdeko Plan Hidrologikoan (2015-2021) ezarritakoa errespetatzen dela bermatu beharko da. Hartara, saihestu beharko dira, bai ibaien ertzen alterazioa eta artifizializazioa, bai ibai-korridorearen aniztasun eta funtzionaltasun ekologiko eta paisajistikoan laguntzen duten elementuena, eta, ahal denean, horiek lehengoratzeari, biziberritzea eta hobetzea sustatuko da.
- Gainera, potentzialki kutsagarriak diren jarduerak jasaten dituzten edo jasan dituzten lursailak daudenez eta, ondorioz, lursail horiek etorkizuneko erabilizailerentzat eta/edo ingurumenarentzat arriskutsuak izan daitezkeenez, gauza bera egin beharko da lurzorua kalitateari buruzko adierazpenari begira, Plana behin betiko onartu aurretik, Lurzorua kutsatzea saihestu eta kutsatutakoa garbitzeari buruzko ekainaren 25eko 4/2015 Legeari jarraikiz.

- Hala badagokio, kalitate akustikoaren helburuetara iristeko behar diren neurriak ezarriko dira, EAEko hots-kutsadurari buruzko urriaren 16ko 213/2012 Dekretuaren 40. artikuluan zehaztutakoaren arabera eta eremu akustikoak eta erabilera aurreikusitako kontuan hartuta.
- Era berean, irizpideak zehaztuko dira planaren garapena paisaia integratzeko; horretarako, erabili beharreko espezieak eta birlandatu beharreko azalerak ezarriko dira, eta kontuan hartuko dira Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailak egindako *Lorategi eta berdegune jasangarriak diseinatzeko eskuliburuan* jasotako gomendio eta neurriak. Alde horretatik, landareztatze- eta lorategi-lanetan ez dira inola ere erabiliko inbaditzaileak izan daitezkeen espezie aloktonoak, hala nola *Fallopia japonica*, *Robinia pseudoacacia*, *Cortaderia selloana*, eta abar. Era berean, neurriak hartuko dira espezie horien hedapena deuseztatzeko eta saihesteko.
- Azkenik, Ingurumen-ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legeak eskatzen duenez, ingurumen-azterketa estrategikoak barnean hartuko ditu klima-aldaketaren gaineko eragina apaltzeko eta hartara egokitu ahal izateko neurriak. Xede horrekin, IHOBek egindako gida metodologiko hauek erabili ahal izango dira erreferentzia gisa: «*Klima-aldaketara egokitzeko udal-programak egiteko gida. Udalsarea 21 lan-koaderno*a eta *Euskadiko Hirigintzaren Plangintzari buruzko eskuliburua klima-aldaketa arintzeko eta klima-aldaketara egokitzeko*.

c. Adieraziko da Planaren zein zatitan txertatu diren proposatutako neurriak, eta espresuki zehaztuko da Planean bildutako zein dokumentu teknikotan jaso diren neurri horiek.

d. Hala badagokio, prebentzio-, zuzenketa- eta konpentsazio-neurriak proposatuko dira, horiek aplikatzea komenigarria edo egingarria denean, bai plangintzaren geroagoko fase edo etapetan, bai Plana gauzatzeko etorkizuneko proiektuetan.

e. Kostu ekonomikoren bat dakarten prebentzio eta zuzenketarako neurrien aurrekontua ere jasoko da, eta horrez gain, horiek gainbegiratzeaz arduratuko den agentea edo pertsona zein den adieraziko da.

#### 1.5. Ingurumena zaintzeko programa

a. Azterketan, ingurumena zaintzeko programa bat garatuko da, eta, bertan, Plana aplikatzeak dakartzen ondorioak berrikusteko aurreikusitako neurriak deskribatuko dira. Neurri horien helburua alderdi hauek kontrolatzea izan beharko da:

- Planak ingurumenean izan ditzakeen ondorio kaltegarriak prebenitu, murriztu edo zuzentzeko neurriak behar bezala ezartzen direla gainbegiratzea.
- Ingurumen-elementu garrantzitsuen bilakaera zaintzea, baita Plana martxan jarri aurretik zeuden ingurumen-arazoen bilakaera ere.
- Plana gauzatzeak eragindako ingurumen-ondorioak aztertzea, aurreikusi gabeko eragin kaltegarriak azkar identifikatzeko eta horiek eragozteko edo zuzentzeko neurri egokiak hartu ahal izateko.
- Plana egikaritzeko aurreikusitako garapen-tresnetan eta proiektuetan prebentzio- eta zuzenketa-neurri osagarriak hartu behar den aztertzea.

b. Jarraipen-neurriak identifikatu egingo dira, eta neurri horiek bat etorri beharko dute 1.4 apartatuan jasotako babes-, zuzenketa- eta konpentsazio-neurriekin.

c. Ingurumena zaintzeko programak jaso beharko du zer adierazle proposatzen diren azterketan, baita kasu bakoitzean datuak biltzeko zer proposamen zehatz egiten den ere, aldizkakotasunari eta erabiliko diren metodoei dagokienez.

#### 1.6. Ingurumen-laburpena

a. Ingurumen-alderdiak Planean nola txertatuko diren deskribatuko da. Xehetasunez aztertuko da nola hartu diren kontuan eta nola betearazi diren «Ingurumen-helburu estrategikoak, printzipioak eta jasangarritasun-irizpide aplikagarriak» izeneko apartatuan ingurumena babesteko deskribatutako irizpideak, helburuak eta zehaztapenak.

b. Aztertuko da zer-nolako probabilitatea dagoen Planak etorkizunean ingurumenean eragin adierazgarriak izateko, eta behar diren argudioak emango dira honako hau egiaztatze aldera: proposatutako babes-, zuzenketa- eta/edo konpentsazio-neurriak Planean txertatuz gero, oso arrisku txikia dagoela ondorio esanguratsu horiek gertatzeko eta, ondorioz, ez dagoela eragozpenik Plana garatzeko. Ondorio hori gauzatu ahal izateko, azterketaren gainerako apartatuetan jasotako informazioei buruzko erreferentzia egokiak erabiliko dira.

#### 1.7. Laburpen ez-teknikoa

a. Azterketak barnean hartuko du emandako informazioaren laburpen ez-tekniko bat, eta ebaluazio-prozesuan jorratutako gaietako prestakuntza espezifikorik ez duten pertsonen erraz ulertzeko moduan idatzita egon beharko du laburpen horrek.

b. Laburpen horrekin batera, gainera, egindako ebaluazioa hobeto ulertzen lagunduko duen informazio grafikoa ere erantsi beharko da; edo, bestela, informazio hori erraz eskuratzeko behar diren erreferentziak jaso beharko dira.

#### 7. Jendaurreko informazioko izapideak eta kontsultak.

Urriaren 16ko 211/2012 Dekretuaren 12. artikuluan eta abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 21. artikuluan ezarritakoaren ondoretarako, organo sustatzaileak jendaurrean jarriko du Planaren hasierako bertsioa, baita ingurumen-azterketa estrategikoa ere, gutxienez 45 eguneko epean.

Era berean, organo sustatzaileak, urriaren 16ko 211/2012 Dekretuaren 12. artikuluan eta abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 22. artikuluan xedatutakoaren ondoretarako, irismeneko dokumentu hau egiteko kontsultatu diren eraginpeko administrazio publikoekin eta pertsona interesdunekin kontsultatuko du gutxienez Planaren hasierako bertsioa, ingurumen-azterketa estrategikoarekin batera. Honako hauek izan dira:

- Eusko Jaurlaritzako Natura Ondare eta Klima Aldaketa Zuzendaritza.
- Eusko Jaurlaritzako Landaren eta Itsasertzaren Garapeneko eta Europar Politiketako Zuzendaritza.
- Eusko Jaurlaritzako Kultura Ondarearen Zuzendaritza.
- Eusko Jaurlaritzako Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritza.
- Eusko Jaurlaritzako Larrialdiei Aurre Egiteko eta Meteorologiako Zuzendaritza.
- IHOBE.
- Uraren Euskal Agentzia.
- Kantauriko Konfederazio Hidrografikoa.
- Mendietako eta Natura Inguruneko Zuzendaritza Nagusia, Mendien eta Naturaguneen Zerbitzua. Gipuzkoako Foru Aldundia.
- Kultura Zuzendaritza Nagusia. Gipuzkoako Foru Aldundia.
- Nekazaritzako eta Lurralde Oreko Zuzendaritza Nagusia. Gipuzkoako Foru Aldundia.
- Nekazaritza eta Arrantza, Elikadura eta Ingurumeneko Ministerioaren EAEko Kosten Mugaketa.
- Eguzkizaleak Aisialdirako Elkartea.
- Gipuzkoako Ekologistak Martxan elkartea.
- Itsas Enara Ornitologia Elkartea.
- Haritzalde.

#### 8. Dokumentazioa aurkezteko jarraibideak.

Ingurumen-ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 24.1 artikuluan aurreikusitakoaren arabera, organo substantiboak ingurumen-ebaluazio estrategikoaren espediente osoa igorriko dio ingurumen-organismoari, honako hauek barnean hartuta: planaren edo programaren azken proposamena, ingurumen-azterketa estrategikoa, informazio publikoaren eta kontsulten emaitzak, eta laburpen-dokumentu bat, planaren edo programaren azken proposamenean honako alderdi hauek nola txertatu diren azaltzen duena: ingurumen-alderdiak, ingurumen-azterketa estrategikoa eta hori irismen-agirira nola egokitzen den, egindako kontsulten emaitza, eta kontsulta horiek nola hartu diren aintzat.

Ingurumen-adierazpen estrategikoa eskatzeko eta dokumentazioa entregatzeko, bete beharko dira Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren webgunean horri buruz dauden jarraibideak, esteka honetan jasotzen direnak: <https://www.euskadi.eus/informazioa/ingurumen-ebaluazio-estrategikoaren-prozeduraren-tramitazioa/web01-a2inginp/eu/>

Eskabidearekin batera aurkeztu beharreko dokumentazioa gidaliburuaren arabera egin eta aurkeztu beharko da. Gidaliburua ingurumen-organoaren webgunean dago eskuragarri, esteka honetan: [https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/eia/eu\\_def/adjuntos/Dokumentuak-aurkezteko-GIDA.pdf](https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/eia/eu_def/adjuntos/Dokumentuak-aurkezteko-GIDA.pdf)

Bigarrena. - Ebazpen hau Errenteriako Udalari jakinaraztea.

Hirugarrena. - Ebazpen hau Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren webgunean argitaratzeko agintzea.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko irailaren 14a.

Ingurumen Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren zuzendaria.  
Javier Agirre Orcajo